



Zortzi euskal film labur izango dira KIMUAKen 2009ko katalogoan

Jakinarazi dute jada zer film laburrek osatuko duten Kimuak programaren 12. edizioa. Programa hori Eusko Jauriaritzako Kultura Sailak eta Euskadiko Filmategiak antolatzen dute. Aurtengo ediziorako aurkeztutako 63 film laburretatik zortzi aukeratu ditu honako hauek osatutako epaimahaiak: Peio Aldazabal (Euskadiko Filmategia), Joxean Fernández (Nanteseko Espainiako zinemaren jaialdia), Juanmi Gutiérrez (Eusko Jauriaritzako Kultura Saila, dokumentalista), Lucía Olaciregui (Donostia Kultura eta Donostia Zinemaldia) eta Annette Scholz (Alcalá de Henareseko zinema jaialdia). Aurten ere gora egin du jasotako film laburren kopuruak, eta gainditu egin du iazko errekorra (52 film labur). Azken aukeraketari dagokionez, berriz, aurten bi genero nabarmentzen dira beste guztien gainetik: komedia eta dokumentala. Aurtengo Kimuak programaren barruan ez dira drama edota animazioa jorratuko. Era berean, nabarmentzekoa da aukeratutako bi film labur euskaraz filmatuta daudela, eta bat ingelesez. Urteroko moduan, halaber, errealizatzaile berriak izango dira aurreko edizioetan partaide izan direnekin batera. Hala, Koldo Almandoz, Telmo Esnal, David González edota Nacho Vigalondo zinemagileez gain, orain arteko edizioetan parte hartu ez duten beste batzuk ere izango dira: Alejandra Márquez, Oriana Alcaine, Anartz Zuazua, Iban Del Campo eta Jorge Rivero.

Katalogoa *5 recuerdos* film laburrekin hasten da, Oriana Alcaine donostiarrak eta Alejandra Márquez mexikarrak egin. Kontakizun eder horrek sukaldaritzako errezeta bat du ardatz, eta oroitzapenari, maitasunari, saminari eta bizitzari buruzko istorioa azalduko digu. Bigarren film laburra esperimentu bisual bitxia da, umore faltarik ez duena; Koldo Almandoz donostiarrak zuzendu du, eta MK Filmak etxeak ekoitzi. *Ahate pasa* filmak ahateek zinemaren historian izan duten benetako rola aztertzen du; euskaraz, gainera. Hurrengo film laburra Telmo Esnalen *Amona Putz!* komedia da, euskaraz egin hori ere. Filma kanpin batean larri dabilen familia baten kontakizuna da, ezohiko amonaren laguntza beharko duena haurrei kontrolatuta eusteko. Laugarren film laburra aurten aukeratutako dokumentaletako lehendabizikoa da. *Dirty Martini* Iban del Campo donostiarrak zuzendua eta ekoitzia da, eta *burlesque* kutsuko giroan (eguneratutako kabaret erotikoko moduko bat) New Yorken errodaturia eta *pin-up* bitxi batek antzeztua. Bosgarren film laburra beste komedia bat da, eta horrek ere adinekoak ditu protagonista. *Él nunca lo haría* aktore lanean ezaguna den Anartz Zuazuak zuzendutako eta ekoiztutako lehen laburra da. Aiton-amonak konpainiarako animalia gisa agertzen zaizkigu bertan, eta ibilbide laburra izan badu ere, jaso du saririk Medina del Campoko zinema jaialdian eta Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian. Haren ostean, fantasia generoa jorratzen duen film labur bat daukagu, David González bilbotarrak egin eta ekoitzia: *Los que lloran solos*. Isolatutako baserri bateko protagonistak bizien eta hilen munduen artean ibiliko dira. Azken-aurreko film laburra Nacho Vigalondo errealizatzaile bikainaren obra da, Arsénico Producciones etxeak ekoitzi. *Marisa* espazioa eta denbora kontzeptuen erlatibitate oinarri dituen abiapuntua da, eta parametro horiek aldatzeak gizakiarengan aldaketa handiak eragiten dituela adierazten du. Katalogoa amaitzeko, aukeratutako bigarren dokumentala daukagu, *La presa* izenekoa, Jorge Riverok zuzendua eta Bizkaiko Aprieta Fuerte etxeak ekoitzi. Memoria jorratzen du film labur horrek: garai batean izandako mundu bat aurkeztuko digu, gaur egun hondarrak eta oroitzapenak bakarrik gelditzen badira ere.

Datorren irailean aurkeztuko dituzte film labur horiek Donostia Zinemaldian. Aurtengo katalogoan bildutako lanak aurrekoak bezain arrakastatsak izan daitezela.

Donostia, 2009ko uztailaren 24a